



489 ZB.KO DEKRETUA.



Oiartzungo haranean, bi mila eta hamarreko maiatzaren hogeita seian.

Jendaurrian zabaldu gabeko negoziaziozko prozedura jarraitu eta gero, 2010eko maiatzaren 4an Alkate- Lehendakari jaunak emandako 404 zk.ko Dekretu bidez erabaki zuen "Oiartzun 2010" eta "Oiartzun 2011" urtekarien inprenta lanen hornidura-kontratua ANTZA enpresari behin-behingo esleitzea.

Sektore Publikoaren Kontratazioa arautzen duen 2007ko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 135.4 artikuluekin adostasunean hamabost egun balioduneko epea eman zitzaion behin betiko bermea ezar zezan, , eta Gizarte Segurantzza eta Hazienda zergatan eguneratua dagoen ziurtagiriak eta bestelako dokumentazioa aurkez zezan.

Horiek aurkeztuta, Legearen 135.4. artikulua 3.parrafoaren arabera, aurreko epea igaro eta gehienez hamar egun baliodunetan behin-behineko esleipena behin betiko deklaratu da.

Gaiaren inguruan Administrazio Orokorreko Teknikariak egindako txostenean jasotakoa aintzat hartuz, espediente bideratzean aplikagarri diren legezko tramite guztiak bete direla kontuan izanik, Toki Jaurbideak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan, ZERA ERABAKITZEN DUT:

Emandako epean ANTZA enpresak bermea ezarri eta aurkeztu beharreko agiriak aurkeztu dituenek, "Oiartzun 2010" eta "Oiartzun 2011" urtekarien inprenta lanen hornidura-kontratua ANTZA enpresari behin betikoz esleitzea, 2010eko urtekarirako 8.528 €ko prezioarekin (BEZ barne), eta hornidura bakoitza entregatzeko epea uztailaren 19ko 12:00tara artekoa izango da.

Ordainketak Udal Aurrekontuko 1 0801 226 451 11 08 (A 1210-2010) diru atalaren kargura bideratuko da.

Aitor Etxeberria Txurio Alkate-Lehendakari Jn.ak agintzen eta sinatzen du, eta neuk idazkari naizenez, ziurtatzen.

